



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.  
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

## **Aitana Agirre**

### **2024.05.30 Ekitaldi politikoa Elgoibarren**

Elgoibar oso presente dago European; zuen txikitasunean handi zarete, 40 km<sup>2</sup> eskasekin mundu osoan dago. Hemengo enpresak ezagunak dira Europa eta mundu osoan, zuen produktuen kalitateagatik eta hainbat merkatuetan liderrak izateagatik. Harro egoteko moduko herria eta enpresak dituzue hemen. Makina Erremintaren Museoak herriaren historia industrial oso ondo kontatzen du. Elgoibarrek beti eduki du tradizio industrial, baina aldi berean zuen esentziari eusten jakin izan duzue, eta museoak ezin hobeto azaltzen du.

Zergatik esaten dut esentziari heldu diozuela? Enpresek jakin izan dutelako herriari itzultzen bertatik jaso dutena, eta horretarako ere baduzue adibide ezin hobea: IMH edo Fabrikazio Aurreratuaren eta Digitalaren Campusa. IMHri esker lan eta ikasketa mundua oso modu egokian lotzen dira: enpresek behar dituzten langileak prestakuntza diren bitartean, kalitatezko enplegua sortzen dute enpresek, eta honek zeharka gure bizikaltatea hobetzen du, gazteok hain beharrezkoak ditugun lan-baldintza duinak eskainiz.

Industria Euskadiren ongizate mailaren arrazoietakoa bat da. Industriak sortzen ditu kalitate handieneko enpleguak eta horregatik da hain garrantzitsua IMH bezalako tresnak izatea eta herriak industria izaerari eustea. Europako herri industrializatuenetakoa gara, kalitatezko produktuak egiten ditugu eta mundu osoan aitortzen dute gure lan ona. Hori ondo ezagutzen duzue hemen, Elgoibarren. Europak garrantzia handia du hemengo industria eta enpresentzat, pentsatzen duguna baino gehiago.

Adibide bezala balio duten pare bat datu: Elgoibarko enpresek urtean ia 40.000 € esportatzen dute Espainiara. Europara berriz ia 100.000 €, hau da, bikoitza baino gehiago. Beraz, Europa oso urruti ikusten badugu ere, oso garrantzitsua da Elgoibarren egunerokotasunean eta ekonomian. Herriko enpresek hainbeste esportatzea Europara eta hain nazioartekotuak egoteak baditu beste alde on batzuk ere: gure balioak eta gure enpresa-eredua zabaltzeko balio du. Euskal enpresek beti izan dute ikuspegi soziala oso garatua, eredia gara European. Gipuzkoa izatea munduan desberdintasun gutxien duen lurraldea ezta kasualitatea. Kooperatibek eskualdean duten inplantazioak ongizate

gizarte horretara iristea, kalitatezko enplegua sortzea eta, lehen aipatu ditudan balio horiek zabaltzea eragiten dute. Kooperatibak gure ADNan daude, eskualdeko ezaugarria dira zalantzarik gabe. Langileak enpresaren bilakaeran inplikaturik baldin badaude, eta enpresaren balioekin bat badatoz, enpresa herria eta bere ongizatearekin lotuago egongo da eta hobeto erantzungo ditu bertako beharrak.

Esan bezala, European eredu gara gure enpresen eredu sozialari eta lan onari esker: eredu gara justizia sozialean, ongizate mailan eta enpresen produktu eta zerbitzuen kalitatean. Kalitatea, esfortzua, ongizatea, justizia. Euskal balioak dira, baina baita europarrak ere. Horrelako balioei hainbesteko garrantzia emateak eraman du Europa giza eskubideetan eta demokrazian oinarritutako lidergo bat izatera. Europa denon artean eraikitako proiektua delako, nazio eta herri desberdinen aniztasunetik sortua, eta hori da hain zuzen ere bere indarra.

Baina hau guztia orain arriskuan dago. Europar Batzordeko presidente den Von der Leyenek Abascal eta Meloni ultraeskuindarrekin paktuak egiteko atea ireki du. Hau oso kezkarria da, demokrazian oinarritutako gizarte bat lortzeko orain arte egindako lan guztia arriskuan jartzen baitu.

Ultraeskuinaren eta faszismoaren aurka borrokatuko dugu, baina beste alderdi batzuek ez bezala, itxurakeriatik haratago, PNVn proposamen zehatzen bitartez egingo diogu aurre. 160 proposamen eramango ditu Oihanek Euskadiren ahotsa Europara eraman dezan, 160 proposamen Europa justu eta demokratikoago bat lortzeko! 1933ko Aberri Eguna askotan aipatu izan da. Garrantzia handiko Aberri Eguna izan zen. Urte horretako Aberri Eguneko leloa "Euzkadi-European" izan zen, gure Europarekiko konpromisoa berretsiz. Baina Europarekiko konpromisoa erakustez gain, Euskadirekiko konpromisoa ere erakusten du lelo horrek. "Euzkadi-European"-ek esan nahi du Europa barruan egongo den Euskadi bat nahi dugula.

Horregatik eskatzen diogu Europar Batasunari gure herriaren determinazio aserako eskubidea gauzatzeko baliabideak jartzeko, Europar Batasun batu eta demokratiko baten kide den Euskadi libre bat lortu ahal izateko! Bere etorkizuna demokratikoki erabakiko duen Euskadi bat, gizon eta emakume libreez osatutako herri libre bat, inor atzean utziko ez duena, euskarari merezi duen tokia emango diona, eta Europak gaur egun hain beharrezkoak dituen balore demokratikoak indartuko dituena.

Elgoibar European oso presente dagoela esanez hasi dut mitina. Egon dadila ekainaren 9an Europa oso presente Elgoibarren eta PNV oso indartsu European!